

Donostian, 2012ko martxoaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Arejita, Adolfo,
Azkarate, Miren,
Coyos, Jean-Baptiste,
Davant, Jean-Louis,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Oihartzabal, Beñat,
Peillen, Txomin,
Sarasola, Ibon,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi,
Videgain, Xarles,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,

Erramun Osa, idazkariordea, eta
Alfontso Mujika, euskaltzain urgazlea,
dagokion gaian.

Ezin etorriak eta ahalak: Pierre Charrittonek eta Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Miren Oñederak ahala Miren Azkarateri; Patxi Salaberrik ahala Andres Iñigori; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiko Jauregian, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran euskaltzainburuak etorririko euskaltzain guztiak agurtu ditu, ondoren batzarrari hasiera emateko.

1. Aurreko gaiak

1.1. Osoko bilkurako akta

Azken bilerako akta dela eta, P. Goenagak esan du pasarte batzuk orokorrekiak direla, eta esangura ez dela ongi ulertzen; testuak zehatzagoak eta uler-

garriagoak egitea eskatu du. J. Haritschelharrek hilberri-txosten batzuk gehiegi luzatzen direla adierazi du eta, ahal izanez gero, laburtzeko.

P. Salaburuk bidaliriko ohar luzea irakurri du M. Azkaratek. J. L. Lizundiak, berak aurreko aktari egin zion oharra ez dela ageri esan du, baina hau erantzun zaio: berak erreferentziatzat harturiko testua jada aurreko batzarrak aldatu zuela eta, beraz, berak aipatzen duen testu hori jada ez dela inon. Osoko bilkurak zuzendu duen pasarte horretan izandako partaidetasun guztiak jasotzeko eskatu du, hitz egin dutenen izen-deiturekin.

Euskaltzainburuak P. Salabururen eta J. L. Lizundiaren testuak aktaren eranskin moduan sar daitezkeela esan du, hala nahi badute. Argitaratzeari dagokionez, ostera, M. Azkaraterekin bat etorritz, gauza batzuk, batzarrean tratatuak izan arren, beren izaera bereziagatik, ez liratekeela argitaratu behar uste du, baina, edonola ere, hori egileei berei galdetu beharko litzaieke.

P. Zabaletak esan du P. Salaburuk eskatu zuena ez zela bozkatu batzarrean. I. Sarasolak erantzun dio, halere, esandako edozer aktan jar daitezkeela.

J. L. Lizundiak bere testua eranskin moduan sartzea nahi luke. Azaroko aktan komatxo arteko testua jartzen ez bada ere, bai, gutxienez partaideen izenak eranstea.

P. Salaburuk eta euskaltzainburuak adosturiko testuan P. Goenagak konpletibo batzuei, argitasun handiagorako, *-la*, eranstea proposatu du, eta P. Uribarren ere horretan bat dator.

Testuei dagozkien egokitzapenak egingo dira P. Salabururen (M. Azkaratek jarriko du jakinaren gainean) eta J. L. Lizundiaren aldetik, eta gero, erantsiko dira.

1.2. I. Sarasolari zorionak eman. Euskaltzainburuak, Akademiaren Zuzendaritzaren izenean, I. Sarasolari zorionak eman dizkio, Eusko Jaurlaritzak aurtengo Ikerketa Saria eman berri diolako.

2. Exonomastika

2.1. «Saharaz hegoaldeko Afrikako toponimia» araugaia onartzea

Hitza J. L. Lizundiak hartu du, Exonomastika batzordeko buruak. Ez da oharrrik jaso eta, beraz, zerrenda hori onarturik gelditu da.

2.2. «Ozeaniako toponimia» araugaia onartzea

Era berean, J. L. Lizundiak Ozeaniako toponimoen proposamenari inork ez dio-la oharrrik egin azaldu du. Horrela zerrenda hori ere onartu egin da.

2.3. Amerikako toponimia aurkeztea

Exonomastikako batzordearen buruak Amerika osoko toponimo nagusien zerrendak azaldu ditu. Izen horietako batzuen euskal tradizio zaharra aipatu du, batzuk gaztelaniaren bitartez, beste batzuk frantsesaren eta, berrienak, ingelesaren bitartez helduak. Alfontso Mujikak izen horien xehetasunak eman ditu, tokian tokiko etsenplu batzuekin, aukera egiteko irizpideak eta, oro har, hizkuntza guztietan grafia bera dutenak ez direla sartu azaldu du. X. Kintanak amerindiar herrien hizkuntzen egoeraz hitz egin du. Normalizazio, ofizialtasun eta batasunik eza aipatu du, eta ondorioz maiz hango toponimo jatorrak estatu bakoitzaren irizpide bereziaz transkribatzen direla. Halere, ahal izan den neurrian, batzordeak bertako toponimoen jatorrizko forma gordetzen, edo horien berri ematen ahalegindu da.

I. Sarasolak *Cuscoren* grafiaren arazoa aipatu du. Peruko Konstituzioan izen horrek (*Qosqo*) 1990etik daukan egoera bereziaz mintzatu da, nahiz eta nazioarteko erabilera idatzi nagusiak *Cusco* edo *Cuzco* erak izan. Bestalde, X. Kintanak hango hizkuntza batzuen batasun mintzatu eta idatzirik eza gogorarazi du. M. Azkaratek galdetu du izen batzuen galdera markaz (*Galesko printzearen uhartea?*, adibidez). A. Mujikak hori errata izan dela azaldu dio.

P. Zabaletak Amerikako toponimo berri horiek idazteko irizpideaz argitasunak eskatu ditu. J. L. Lizundiak erantzun dio batzuetan espainol eta frantses tradizioak alde batera utzi direla, ingeles erabileren alde. (New York...). I. Sarasolak euskaraz horiez dugun idatzizko tradizioa ere gogorarazi du. J. B. Coyosek ea zerrenda horiek noizko aztertu eta erabaki behar diren galdetu du. J. L. Lizundiak epeak jakinarazi ditu: Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako zerrendei oharrak aurtengo apirilaren 20rako, eta Ipar Amerikako zerrendari, aldiz, maiatzerako bidali beharko dira.

3. *Hiztegi Batua*, 2. itzulua. azken atala

A. Sagarnak Euskaltzaindiaren *Hiztegi Batuaren* edizioaren prestaketa zertan da goen azaldu du. Aurretik ezarritako epeak ongi betetzen ari dira eta, hortaz, programaturik dagoen bezala, hiztegia aurtengo udazkenerako argitaratuko dela uste du.

Bestalde, bigarren itzuliko E eta F markarekin azaltzen diren hitzen bigarren zerrenda ere banatu du euskaltzainen artean, eta horri oharrak egiteko epea apirilaren 20ra arte dela gogoratu du.

Ohar bat jaso du, *sifilis* hitzaren grafiari buruz, euskaldun mediku batek egina. Horrek argitu eta emandako datu egiaztatuen arabera, gaixotasunaren izenean ez dago grezierazko antzeko hitzen *-sis* bukaerarik, *dosi*, *hipnosi*, *krisi* edo *metamorfosi*

hitzetan bezala. Hitz hori latinez asmatu zuen Girolamo Frascatorok, XVI. mendeko italiar poeta eta medikua izandakoak, antza denez, Ovidioren *Metamorfosia* obrako Syphilus artzainaren izenetik abiaturik Syphilidis izena asmatuz. Beraz, euskaraz *sifilis* izena legokioke, -s eta guzti. Azalpenok entzunda, hitz horren grafia zuzendu eta *Euskaltzaindiaren Hiztegia*n horrelaxe jartzea erabaki da.

X. Kintanak Euskaltzaindiaren hiztegiko *aita/guraso* hitzez ahoz ohar bat egin du. Hurrengo bilkurarako horretaz informazio idatzia ekarriko duela esan du. Bide berean, I. Sarasolak berak ere datuak biltzeaz arduratuko dela adierazi du.

4. 2012. urterako aurreikuspenen garapena

Jobesa Zabaletak, Euskaltzaindiaren kudeatzaileak, euskaltzainen mahai gaineko pantailetan 2011ko urteko emaitza ekonomikoak erakutsi eta xeheki azaldu ditu, eta bereziki ondoko hauek: Balantzea, Galdu-Irabaziaz eta 2011ko exekuzioa, urteko aurrekontuarekin eta 2010eko datuen konparazioa eginez. Oro har, 2011ko aurrekontua %99,91an bete dela azpimarratu du, eta hori ez da ohikoa izan Euskaltzaindiaren orain arteko jardunean. Aurreikusiriko plana ere bere osotasunean egin da: zerbitzuak, batzordeak, egitasmoak, argitalpenak, etab. Luis Villasante Euskaren Ikergunearen inaugurazioa ere gogoratu du. Diru sarrerei dagokienez, krisiaren eraginaz, 2006 eta 2007 urteetako mailara itzuli da Euskaltzaindia, baina 2010eko urtearekin konparatuz, 2011n finantzabide iturri berriak ireki dira, Aurrezki Kutxenak, besteak beste, eta horiek, etorkizunari begira, baliagarri izan daitezke. Gastuetan ere ahalegin handia egin da, gastu maila urteko diru sarreretara egokitzeke, eta horren ondorioz, ez da defizitrik sortu. 2010ean gastatu zenarekin alderatuz, 2011n %8,94 gutxiago gastatu da, batez ere kontzeptu eta partida guztietan, efizientzia hobetzea lortu delako.

2012ko Aurrekontuari dagokionez, aurtengo diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak azaldu ditu banan-banan, zuzendaritzak onartu duen moduan, eta horretarako erabiliriko irizpideak ere argitu ditu, euskaltzainen artean banatutakoa oinarritzat hartuta.

Bukatzeko, ekonomia egoerak eragindako ezinbesteko neurriok hartu beharra gorabehera, Euskaltzainburuak esan du Zuzendaritzak ez duela asmorik Osoko bilkurari dagozkion zereginak murrizteko.

B. Oihartzabalek galdetu du ea Madriletik ikerketa proiektuetarako laguntza etorriko den. A. Urrutiak erantzun dio, krisi-egoera eta diru-laguntzen murrizketa larria eta euskaltzain oso batzuen aurretiazko ikerketa konpromisoak ikusita, Euskaltzaindiak aurrean, horrako, *Lexikoaren Behatokia* egitasmoa besterik ez duela aurkeztu.

P. Goenagaren galderari erantzunez, hots, Gasteizko toponimia dela eta, J. L. Lizundiak bertako alkateak esandakoaren haritik, zailtasunak izango dira udalak babes osoa emateko. Edozein modutan, udazkenaz gero jakingo da egitasmoak izango duen etorkizuna. A. Arejitak Atlaseko bidaia-gastuetarako arazoak aipatu ditu, eta horiek konpontzeko moduz mintzatu da.

Nolanahi ere den, eta egitasmoei dagokienez, Joseba Zabaleta kudeatzaileak argi esan du aurtengo urrira arteko finantzazioaren garantia behintzat badela, eta urte osoa bermatzeko, Zuzendaritza ahaleginetan dabilela gogoratu du.

P. Zabaletak galdetu du ea, dirurik ezagatik, Euskaltzaindiak *ERLEA* aldizkaria alde batera utziko al duen. Euskaltzainburuak ezetz erantzun dio, baina aurrerantzean finantzabide propioa beharko duela. Euskaltzainak berak Nafarroako Gobernari Etxepareren erakusketa eskaini al zaion galdetu du. E. Osak eta A. Iñigok erantzun diote: Nafarroako Gobernuak Euskarabidekoek eskatu eta Euskaltzaindiak baiezkota eman ondoren, dirurik ezagatik nonbait, Gobernuak ez egitea erabaki zutela.

P. Goenagak esan du euskaltzain osoek jakitun izan behar dutela Euskaltzaindiak une honetan egitasmoetan dihardutenekin duen konpromisoaz. Konpromiso hori aurten amaitzen denez, hurrengo zuzendaritza zorrik, edo zulorik, gabe hasiko bide da. Horrela egitasmoen lan- eta finantza-konpromisoak berriro aztertu beharko dira datorren urtean. Horrek ez du eragozten, hala ere, hurrengo Zuzendaritza edozein izanik ere, aurten bertan egungo egitasmo eta batzorde bakoitzaren egoera aztertzea eta Euskaltzaindiaren lehentasunen arabera egitasmo horien hurrenkera eta egokitasuna markatzea. Euskaltzaindiak aurten burutu nahi duen gogoe-taren fruitua izan liteke hau. Lehentasun hauek aurten finkatuz gero, etorkizunean diru iturriak murriztu nahi handitu, errazago izango zaio Euskaltzaindiari finantza plan egokia egitea 2013rako. Baina egitasmoen hurrenkera, ahal dela, aurtendik bertatik finkatua uztea komeni dela. Erantzunean, euskaltzainburuak gogoratu du lanean diharduen Zuzendaritza honek, bere kudeaketaren hasieran, hitz eman zuenez, harturiko konpromisoak bere agintaldi osoan beteko dituela eta ezin utz dezakeela Euskaltzaindian lanean eta zerbitzu ematen diharduen jendea inolako segurtasunik eman gabe. Bestalde, Euskaltzaindiak argi izan behar du esku artean diru publikoa darabilela, eta horren kontu hertsia ere eman beharra daukala. Dena den Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak Akademiaren zerbitzuak, egitasmoak, batzordeak eta lantaldeak bilduko ditu banan-banan eta datozen urteetarako horiek dituzten asmoak aztertuko ditu, ondoren Osoko bilkuran aurkezteko, plan-estrategikoa kontuan hartuz.

Ontzat eman da orain arteko emandako informazioa eta hurrengo osoko bilkuretan halakoa ematen jarraituko da zuzendaritzaren aldetik, bere garaian agindu zen bezalaxe.

5. Euskaltzaindiaren plan estrategikoa: hausnarketa

E. Osa idazkariordeak aurkeztu du ibilian dauden proiektuen azken hilabeteetako egoera. Hor bakoitzean egindako urratsak azaldu ditu banan-banan, eta beren aurrerapen-atzerapenak nabarmendu. Arlo batzuetan aipatu diren atzerapenak direla eta, I. Sarasolak disfunzio horiek, neurri handiz, baliabide zaharkituekin lan egin beharragatik gertatzen direla azpimarratu du, informatika aldetik heldurik.

A. Arejitak, berriz, bere ustez lan egiteko dagoen burokrazia handiegia salatu du, maiz zereginak justifikatzeko paperteria handiegia bete behar izaten delako. Lan burokratiko horrek langileei denbora handia jaten die, eta hori, ahal delarik, murriztu beharko litzateke, jendea pozago egon dadin. Informatika-oztopoak ere aipatu ditu. Bete beharreko plangintza eta errendapenak direla-eta, E. Osak egitasmoen jarraipena egin beharra dagoela azpimarratu du, izan ere, herri-aginteez geroz eta sarriago, galdetzen baitute egitasmoei buruz, garapenari buruz eta burutzeko Akademiak dituen aurreikuspenei buruz.

M. Azkaratek E. Osaren informazioa paperean edo euskarri digitalean eskaintzea eskatu du. Halaxe helaraziko zaie euskaltzain guztiei.

Informatika aldetik jasoriko oztopoak, A. Sagarnak esan duenez, kanpoko hornitzailearen batekin tratatzen dira eta oztopoak daude adosteko, gehiegizko baldintza ekonomikoak eskatzen dituelako.

6. Eskuartekoak

6.1. Euskaltzaindiaren 2012ko egutegi berritua aurkeztu eta onartzea

Iazko azaroaren 25eko Osoko batzarrean 2012ko egutegia onartu zen, baina harrezkero Osoko batzarren kopurua gehitzea erabakienez gero, egokitzapenak egin eta egutegi berritua aurkeztu du, Zuzendaritzak onartua, berretsia izan dadin. Horrez gainera, Ageriko bilkura batzuk egitea ere pentsatu da, baina aurreikuspenak besterik ez dira, eztabaidagai eta osatzeko modukoak. P. Zabaletak eskatu du, ahal izanez gero, Euskaltzaindiko bilkurak beti ostiraletan egitea, profesiodunen eguneroko lan-programa behar bezala antolatzeko. Ahaleginak egingo direla erantzun zaio.

Osoko bilkuren egutegi berritua berretsi da.

6.2. Manifestaldia Baionan

A. Arkotxa euskaltzainburuordeak azaldu duenez, 2012ko martxoaren 31n Baionan manifestaldia egiteko deia dago, Iparraldean euskararen ofizialtasunaren eta horren aldeko lege baten eskaria bultzatzeko. Hor Euskaltzaindiak bat egin du *Euskal Konfederazioa* eta *Kontseilua* elkarteekin, DEIADAR manifestaldiaren helburuen alde. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak martxoaren 22an onartu zuen horra-ko Agiria eta Iparraldeko euskaltzainekin landu zuen. Agiri hori Akademiaren webgunean irakur daiteke, euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

6.3. Nafarroako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

Apirilaren 3an Jarraipen Batzordea bilduko da Iruñean, bertako Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren artean 2012. urteko hitzarmena izenpetzeko. Hor ECO, Mendaur bilduman liburu bat argitaratzea, eta Euskaltzaindiaren gastuei erantzuteko laguntza jasoko dira. Era berean, 2011. urteko hitzarmenaren arabera *Nafarkaria* digitalizatu zenez gero, horren aurkezpena laster egingo da. Gainera, EHHA egitasmoaren laugarren liburua Iruñean aurkeztuko da irailean.

6.4. Sarako liburu-azoka

Apirilaren 9an egingo da eta bertan Euskaltzaindiak bere presentzia azpimarratuko du, aurkezpenean bere Zuzendaritzako kide nagusien partaidetasunaz. Era berean, Akademiak aurkeztuko dituen liburuak EEP erakundearekin 2011n izenpeturiko hitzarmenean jasorikoak izango dira:

- a) *Onomastique du nord de Pays Basque (XIe-XVe siècles)*, egilea Eugene Goyhenetche, Xarles Videgainek prestatua.
- b) *Gratien Adema «Zaldubi»: Bertze prediku batzuk*. Prestatzailea: Henri Duhau.
- c) *Xiberoko antzertia edo Pastoral*. Egilea: Junes Casenave-Harigile.
- d) *Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord*. Egileak: Erramun Baxok eta Jean Baptiste Coyos.

6.5. Txillardegiren hilberri-txostenaren egileak

Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegi»-ren hilberri-txostena dela eta, Jean-Louis Davant euskaltzain osoak eta Jose Agustin Arrieta euskaltzain urgazleak txosten bana idatziko dute, hor bereziki Txillardegiren eta Euskaltzaindiaren arteko lotura eta egileak literaturari egindako ekarpena gogoratuz. Ontzat ematen da.

6.6. Izendapenak

- a) Ana Toledo euskaltzaina ordezkatzeko, A. Sagarna euskaltzaina izango da aurrerantzean Donostiako Euskararen Aholku Batzordean Euskaltzaindiaren ordezkaria, Zuzendaritzak 2012ko otsailaren 21ean erabakirikoaren arabera.
- b) A. Sagarna ordezkatzuz, Joan Mari Torrealdai euskaltzaina izendatzen da PUNTUEUS elkartearen eta Fundazioan Euskaltzaindiaren ordezkari.

Ontzat ematen dira.

6.7. Sariketa batzuetako epaimahaikideak

- a) Iruñeko Udalak urtero euskaraz haurrentzat antolatzen duen Literatura lehiaketak, bere seigarren arauan, epaimahaiko kide bat Euskaltzaindiak izendatu behar duela dio. Horri erantzuteko, aurten Zuzendaritzak Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea proposatu du.
- b) Era berean, Euskadi Literatura Sariak (Euskarazko Literatura Itzulpena) delakorako, honako izen hauek proposatzen ditu: 1) Koro Navarro, 2) Jon Casenave, 3) Joxe Agustin Arrieta edo 4) Xabier Olarra. Hauetako bat izendatu behar da, beraz, hurrenkera hori kontuan hartuko da, haiekin hitz eginez.

Ontzat ematen dira.

6.8. Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Arloan Euskal Herriko Curriculum Vitae onenarentzako Saria (Euskadiko Kutxa eta Eusko Ikaskuntza). Zuzendaritzak 2012ko martxoaren 22ko bileran Joxe Azurmendi euskaltzain ohorezkoa proposatzea erabaki zuen. Ontzat eman da.

6.9. Hitzarmenak:

- a) **Soraluzeko toponimiarako lankidetzaren hitzarmena.** Soraluzeko udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatu da 2012ko otsailaren 20an, horren bitartez Soraluzeko toponimia bildu, arautu eta normalizatzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza-oinarriak zehazteko.
- b) **Mallabiko udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena.** Horren bidez Mallabiko toponimia bildu, arautu eta normalizatzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza-oinarriak zehazteko. Apirilean izenpetzekoa.
- c) **Hizkuntza Industrien Elkartea Euskal Herrian LANGUNEren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena.** Apirilaren 27an izenpetuko da Bilbon.

6.10. Arau batzuen hurrenkera (Akatsen zuzenketa webgunean)

Euskaltzaindiak argitaraturiko arauen zerrendan, hurrenkera-okero bat nabarmendu da, ohar honen bidez arteztu nahi dena:

160.a Hiztegi batua: **h-Hz** izango da (*Euskera*, 2009)

161.a Hiztegi batua: **i-izutzaile** izango da (*Euskera*, 2009)

Hurrenkerari dagokionez, webgunean zeuden exonomastikako arau hauek dira zuzendu beharrekoak:

160.a zena, orain 162.a da

161.a zena, orain 163.a da

162.a zena, orain 164.a da

163.a zena, orain 165.a da

6.11. Jose Luis Lizundiak Zuzendaritzako postua utzi du

Donostian, 2012ko martxoaren 30eko datako idazki baten bitartez, J. L. Lizundia Askondo euskaltzainak Akademiaren Zuzendaritzan duen kargua, diruzainarena, utzi du, erakundearen 13.7. artikulua dioen moduan, karguaren dimisioa aurkeztuz. Bere erabaki hori ezeztazina dela azpimarratu du.

Euskaltzainburuak, orain arte, hainbeste urtetan Euskaltzaindiarentzat egindako lan handia eskertu dio eta J. L. Lizundiarentzat omenaldi bat eskatu du, hurrengo batean zehaztekoa.

P. Zabaletak erabaki hori birritan pentsa dezala eskatu dio, eta dimisioa mahai gainean uzteko. Erabaki hori birkontsideratzeko eskatu diote A. Arkotxak eta X. Videgainek ere. J. L. Davanten ustez pertsona guztiak libre dira eta ezin da inor behartu bere borondatearen kontra jokatzera. J. L. Lizundiak esandakoak entzunda, eskerrak eman eta bere dimisioa mahai gainean uztea erabaki du.

7. Azken ordukoak

Bukatzean, A. Urrutiak hurrengo Osoko Bilkura Bilbon, apirilaren 27an, egoitzan, goizeko 10etan, izanen dela gogorarazi du.

Bilkura 14:40an amaitu da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria